

73. atala: Bakarka

Sintonizatzen

73.1.- Adierazi adierazpide hauek egia edo gezurra diren, edo ez diren esaten (sobera dauden).

	Egia	Gezurra	Ez da esaten
<ul style="list-style-type: none"> - Tasiok "Jon eta Jone" irratsaioa sintonizatu du Lurreko orbitan sartu direnean - Tasio Jonekin identifikatzen da nagusiki, txikitan astronauta izan nahi zuelako - Lurraren orbitatik atera gabe ezin da Jon eta Jone irratsaioa sintonizatu - Jon eta Jone bezalako sugetzarrak gustuko ditu Kevinek - Irrati uhinak espazioan galduta gera daitezke urtetan - Eskisabel kapitainak ezagutzen zuen Jon eta Jone irratsaioa - Bi astronautek inuzentekeria bat egin diote Eskisabeli - Eskisabelen eta Tasioren ahotsak Jon eta Jonerena bezalakoak direla konturatu dira astronautak 			

73.2.- Badakizu Tasio zer ari zen entzuten?

Tasio "Jon eta Jone" entzuten ari zen.

"Jon eta Jone" Euskadi Irratiaren irratsaio famatu bat izan da. Bertan bikote baten gorabeherak kontatzen dira modu umoretsu eta dibertigarrian. Lehenengo zatiak 94 atal ditu, eta bikotearen hausturarekin bukatzen da. Bigarreanean, 13 urte pasatu ondoren, Jon eta Jonek berriro topo egin eta beren abenturak beste 114 ataletan kontatzen dira.



73. atala: Bakarka

Trebiñu aste honetan bukatuko denez, "Jon eta Jone"rekin proba egin nahi baduzu, hemen daukazu bigarren denboraldiko [lehenengo atala](#). Entzun, eta, gustukoa baduzu...

*Bigarren denboraldiko lehen atalaren Ikasbileko fitxa: [1794667](#)



*Atal guztiak **Ikasbilen** daude, eta, nahi baduzu, haiei buruzko jarduerak ere bertan dituzu.



Lehen denboraldia:
Ikasbileko fitxa: [1398033](#)



Bigarren denboraldia:
Ikasbileko fitxa: [1794658](#)



Ikasbileko fitxa: [2388507](#)



73. atala: Bakarka

Transkripzioa (03:09)

E- Jon, Jon, lo zagoz?

G- Grrnn

E- Hori zer da bai ala ez?

G- Bai eta ez.

E- Bai eta ez?

G- Bai, lo nengoela eta orain ez, esnatu nauzulako, Jone.

E- Ai, ez izan marmartia eta eman pikito.

E- Ba dakizu zein egun den gaur?

G- Zure urtebetetzea? Ez, ezta? Hori aste santu-partean izaten da.

E- Ez. Ez da nire urtebetetzea.

G- Ezidazu esan gure urteurrena edo halakorik denik, e? Badakizu ez naizela halakoekin oso ongi moldatzen eta.

E- Baina guk noiz ospatu dugu gure urteurrena?

G- Ez, egia da. Gainera, bitan ospatu beharko genituzke, bitan hasi garelako elkarrekin, bitan elkarrekin bizitzera joan, bitan...

E- Aizu, Jon, eta zuk txikitan zer izan nahi zenuen?

G- Behin baino gehiagotan esan dizut: astronauta.

E- Eta nondik atera zenuen ideia zoro hori?

G- Espazioko pelikulak ikusita. Izugarri atsegin nituen txikitan espazio-ontzi eta martziano-filmak.

G- Eta zuk?

E- Nik, lehendakari.

G- Uhm. Ez zaitut ba ikusten nik, e? Salerosedia zara, eta badakizu lehendakari izateko horrek kontra puntuatzen duela.

E- Zer naiz ba ni? Txikito de la Calzada?

G- Ez, baina... Hala ere, Merkel izanda, ze demoniotarako nahi duzu lehendakari izan.

E- Nik lehendakari izan nahi nuen inuxente eguna debekatzeko.

G- Eta hori?

E- Beitu, 10 urte nituenean inozentada egin eta klaseko denok barre egin zuten nire kontura.

G- Eta horregatik inuxente-eguna debekatu nahi duzu.

E- Inuxente-eguna kentzeko modu bakararra lehendakari bihurtzea zela esan zidan amamak.

K- Baina zer ari zara entzuten, Tasio?

K- Miamin egiten diren sugetzar kutre horietako bat dirudi.

T- Ez zekiat zer den. Lurreko orbitan sartu garenetik gure irratiak uhin hau sintonizatzen dik.

K- Badakizu, irrati-uhinak batzuetan espazioan galduta geratzen dira, betirako. Igual duela 25 edo 50 urteko irrati-uhina izan daiteke.

T- Ezin diat gure komunikazio-irratitik kendu.

K- Ba saiatu, ze ezin dut jasan irratsaio pasteloi hori. Hala ere, jabetu zara?

T- Zertaz?

K- Zure ahotsaren antza handia zuen tipo horrek..

T- Benetan? Ez nauk konturatu, baina Jone horri Eskisabel kapitainaren antza hartu zioat.

E-Zertarako deitu duzue?

K- Ikusten?

T- Joder ba egia duk, e?

E- Bueno, baina zertaz ari zarete?

K- Eta zureak ere... klona dirudi!

E- Zer? Inuzentekeria bat al da hau? Jakizue Independentzia garaitik ez dugula espainolen egun berean ospatzen inuzenteen eguna...

T- Egia duk, e? Ahotsa igual-iguala zeukak...

Erantzunak

73.1.-

	Egia	Gezurra	Ez da esaten
- Tasiok "Jon eta Jone" irratsaioa sintonizatu du Lurreko orbitan sartu direnean	✓		
- Tasio Jonekin identifikatzen da nagusiki, txikitan astronauta izan nahi zuelako			✓
- Lurraren orbitatik atera gabe ezin da Jon eta Jone irratsaioa sintonizatu		✓	
- Jon eta Jone bezalako sugetzarrak gustuko ditu Kevinek		✓	
- Irrati-uhinak espazioan galduta gera daitezke urtetan	✓		
- Eskisabel kapitainak ezagutzen zuen Jon eta Jone irratsaioa			✓
- Bi astronautek inuzentekeria bat egin diote Eskisabeli		✓	
- Eskisabelen eta Tasioren ahotsak Jon eta Jonerena bezalakoak direla konturatu dira astronautak	✓		